



Jokoaren arauak. Harremanen etika



Sarrera

Zoriontsu izatea bizitzako helburu bat da; baita besteen zorionerako lagungarri izatea ere. Hala ere, ZORIONTASUNA ideia handiegia da, utopiko samarra, beharbada.

Errealistagoa da ongizateaz mintzatzea. Pertsona guztiek saiatu behar dute bizitzan ongizate egoera arazoizko bat lortzen. Eta besteen zorionerako lagungarri izaten.

Nola lortzen da hori? Pertsona bat bere oinarrizko premiak asetzea lortzen duenean egoten da ondo. Oro har, ongizate pertsonala erdiesteko, norberarekin ondo egon behar izaten da, seguru eta maitatua sentitu, guretzat garrantzizkoak diren pertsonen lotua egon: gurasoak, familia, lagunak... Beharrezkoa da talde batean txertatua egotea ere, zure koadrilan, zure jendearekin.

Ondo sentitzeko elementu garrantzizkoenetako bat burujabetza pertsonala lortzea da. Burujabe izateak esan nahi du pertsona bere kabuz baliatzeko gauza dela, maila guztietan.

Beti esan izan da nerabezaroa haurtzaroaren eta helduaroaren arteko iragaite aldia dela. Etapa horrexetan bereganatzen dira, hain zuzen, pertsona burujabea –hau da, pertsona heldua, askea, erabakitze ahalmena duena, bere biziari zentzua emateko gai dena– izateko beharrezkoak diren elementuak.

Burujabetza pertsonala erdiesteko, heziketa oinarrizkoa da. Heziketari esker lortuko dugu gure bokazioa garatzea; gizarte txertatzeko elementuak emango dizkigu lanbide baten bitartez, lan munduko ateak irekiko dizkigu eta, lanari esker, ekonomikoki burujabeak izango gara.

Baina hemen, batez ere, afektibitatearen esparruan burujabe sentitzearen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Haurtzaroan eta nerabezaroan, pertsonen estalita eduki ohi dituzte beren premiak. Familia, kasu gehienetan, espazio babestua izan ohi da. Gurasoekiko harremanak eman ohi du hazteko beharrezkoa den segurtasuna.

Nerabezaroan premia berriak sortzen zaizkigu. Familiako ongizatea txiki geratzen zaigu eta aukerak zabaltzeko premia sentitzen dugu. Horregatik, adiskidetasunak garrantzi handia hartzen du. Benetako lagunak, mutil edo neska, garrantzi handikoak bilakatzen dira guretzat, familia bera bezain garrantzitsu, askotan. Lotura berriak ezartzen dira.

Etapa horretan hasten gara hainbat emozio eta sentimendu sakon sentitzen: beste pertsona batzuekiko erakarpena, maitasuna, maitemina... Orain agertzen dira erotismoa, sexu-desira edota erakarpen erotikoa ere.

Horrek guztiak intimitate handiagoko pertsona arteko harremanak ezartzera eramán gaitzake. Horri esaten diogu mutiletan edo neskatan egitea.

Garrantzi handia du pertsona arteko harremanak eratzea –hala afektibitate- nola sexu-



harremanak– pertsonak ase beharreko premiak direla ikasteak, horretaz ohartzeak. Pertsona batzuei lehenago gertatzen zaie, beste batzuei geroago. Ez dago zertan presaka ibili.

Baina, kontuz! Ez dago norberaren premiak edozein preziotan asetzerik, bai premia afektiboak –maitatua sentitzea, nor maitatu izatea– eta bai premia sexualak beste pertsona batekin partekatzen den espazioan asetzen baitira.

EZINBESTEKOA DA JOKOAREN ARAUAK ONARTZEA ETA APLIKATZEA

Koaderno honetan aurkituko dituzu «jokoaren arauak», hau da, pertsona arteko harremanetan aplikatu beharko dituzun printzipio etikoak. Arau horiei esker, zure harremanak bidezkoak, errespetuzkoak eta berdintasunezkoak izatea lortuko duzu.

7 arauak

Zazpi dira bete beharreko arauak:

- 1.- Sexu-harremanak izango ditut, baldin eta beste pertsona nirekin sexu-harremanak izateko prest badago (onespena).
- 2.- Bion ongizaterako, helburua ez da nik bakarrik gozatzea. Bestearen gozamina ere kontuan hartu behar dut (plazer partekatua).
- 3.- Zaindu egin behar dut nire bikotekidearen osasuna. Nire osasuna ere zaindu behar dut (sexu-osasuna).
- 4.- Ez ditut nire asmoak ezkutatu behar. Ez dut engainatu behar (leialtasuna).
- 5.- Guztiok berdina gara, edozein direla ere gure sexua eta sexualitatea bizitzeko modua. Berdina gara intimitate-harremanetan ere (berdintasuna).
- 6.- Nire bikotekidea izan nahi duen eska diezaioket pertsona bati. Ezin dut inor nire bikotekide izatera behartu (lotura).
- 7.- Zaindu egin behar dut nire bikotekidea, elkarrekin hazi eta hezi gaitzen. Horretarako, bizitzan dituen helburuak ezagutu behar ditut, eta horiek erdiesten lagundu behar diot. Nireak zein diren ere jakin behar dut eta behar ditudan sostenguak eskatu (zainketak).



Ondoren, joko-arau bakoitzari dagokion printzipio etikoaren deskribapen labur bat aurkituko duzu.

Onespenaren etika

Bai harreman afektiboak eta bai sexualak pertsonen askatasunaren parte dira. Beraz, ez dago inor behartzerik nahi ez duena egitera, ez bikote harremanetan, ez sexu-harremanetan.

Sexu-harremanak bizitzan zehar nola edo hala ebatzi beharreko oinarrizko premia dira. Baina premia hori ez da berdina pertsona guztietan, ez adin guztietan ere.

Sexu-harremanek ikasketa erritmo bat dute, maila bateko heldutasun pertsonala eskatzen dute eta pertsona bakoitzaren printzipio edo hastapenen arabera planteatzen dira.

Sexu-harremanak partekatuak diren neurrian, onespenaren etika aplikatzeak esan nahi du ezin daitekeela egin bikoteko bi kideek aurrez **onartu** ez duten ezer.

Beste era batera esanda, sexu-harremanak izateko, ezinbestekoa da beste pertsonak, askatasunez, horretarako onespena ematea. Inork ez du eskubiderik bere desira erotikoa beste pertsona bat behartuz, erasoz edo haren aurka indarkeria erabiliz asetzeko. Onespenaren etikak, hortaz, negoziatzeko eta frustrazioa onartzeko gaitasuna izatea eskatzen du.

Sen onak adierazten du sedukzio-estrategiek non dituzten mugak; haren arabera erabakiko da, beraz, egoerak noiz diren bortxazkoak. Ez dago inor erabiltzerik, norberaren probetxurako, bere borondatearen aurka. Pertsona guztiek dute eskubide osoa **BAI** esateko eta **EZ** esateko.

Printzipio etiko hori onartu ezean, sexu-indarkeria genuke, bere adierazpen orotan.



Plazer partekatuaren etika

Plazer erotikoa bilatzeak norberaren atsegina asetzera bultzatu ohi ditu pertsonak. Baina asebetetze hori harreman partekatuaren bitartez lortzen da. Hortaz, plazer erotikoa tartean denean, ezin da NIGAN soilik pentsatu, baizik eta GUGAN.

Plazer partekatuaren etikak bikotekidea aintzakotzat hartu beharra gogorarazten digu. Konturatu behar dugu norberaren erantzukizuna dela beste pertsonaren ongizateaz arduratzea ere. Horretarako, beharrezkoa izango da bikotekidearen egoera emozionala «irakurtzen» ikastea eta horren arabera jokatzeko.

Premiazkoa izango da, hortaz, hain esperientzia intimoan partaide izango dugun pertsonaren ezaugarriak, ñabardurak, gustuak eta berezitasunak ezagutzea. Komunikazioak garrantzi ikaragarria du prozesu honetan.

Printzipio honen aplikazioaren adibide bat baieztapen honetan ikus daiteke: «...Guk biok sexu-harremanak izaten ditugunean gertatzen zaizun guztia, onerako (plazerra, ongizatea) nahiz txarrerako (sexu-portaerarekin lotutako arriskuak), niri ere badagokit».

Gauzak horrela ikusita, esandako printzipio etikoak nolabaiteko heldutasuna eskatzen du, kalitateko sexu-harremanak posible izango badira. Horregatik, ez da aholkagarria lasterregi ibiltzea, baina sexu-harremanak iristen direnean, hori guztia pentsatuta edukitzea komeni da.

Printzipio etiko hori ez izateak beste pertsona objektu soil gisa erabiltzeko bidea ematen du



Sexu-osasunaren etika

Sexu-osasunaren etika pertsona bakoitzak sexu-harreman partekatuetan duen erantzukizunarekin dago lotuta. Nork bere burua eta bikotekidea zaintzeko erantzukizuna hartzea da kontua. Baina ez bakarrik osasun fisikoari, sexu-transmisioko gaixotasunei eta nahi gabeko haurdunaldiei dagokienez; izan ere, osasun psikologikoa, esperientzien kalitatea, hazkunde pertsonala, balioak, autonomia, ongizate pertsonala eta kolektiboa ere sartzen dira bertan.

Printzipio etiko honek garrantzi handia du amatasun-aitatasun arduratsuaren esparruan. Haur bat izateko edo ez izateko erabakiak printzipio horretan oinarritu behar du, kontuan hartuta zer-nolako ondorioak izango lituzkeen, osasunaren esparruan, baita izaki berri batentzat ere.

Printzipio etiko honen baitan, oso garrantzitsua da norbera beste pertsonaren lekuan ipintzeko ahalmena ere; enpatia, alegia.

Gogoan izan: «Zuri gertatzen zaizun guztia, onerako nahiz txarrerako, niri ere badagokit».

Printzipio etiko hau ez izateak portaera sexualari lotutako arriskuak ugaltzea ekar lezake



Leialtasunaren etika

Pertsonen arteko harremanak egian eta zintzotasunean oinarritzea eskatzen du leialtasunaren etikak. Premia pertsonalak asetzeari jokoan dagoenean, oso garbi eduki behar da zer helburu lortu nahi diren harremanaren bitartez. Ez dira estali behar helburu horiek, ez mozorrotu ere.

Adibidez, pertsona bat oso desleiala izango da beste batekin oso maiteminduta dagoela esaten badu, baina esperientzia erotiko bat izatea besterik nahi ez badu.

Desleialek bikotekidea manipulatzeko erabiltzen dute engainua, beren helburuak asetzeko xede bakarrarekin; eta, horretarako, baliabide bidegabeak erabiltzen dituzte.

Leialtasunaren etikarik ez dagoenean, engainatu egiten da.



Berdintasunaren etika

Berdintasunaren etikak jarraitzen duen printzipioa hauxe da: bikote-sistema bat osatzen duten pertsonak eskubide berbera izango dute gizabanakoen askatasuna erabiltzeko, maila berean egongo dira biei dagozkien erabakiak hartzerakoan, erantzukizun bera izango dute zeregin partekatutak betetzearen gainean, eta baldintza berdinetan egongo dira harremanaren barruan boterea erabiltzeari dagokionez. Bikote-sistemaz ari garenean, ez gara bikote eratu eta finkoetz soilik ari; esperientzia esanguratsu bat partekatzea —adibidez, esperientzia erotiko bat— erabakitzen duten pertsonak ere sistema horretan sartzen dira.

Berdintasunak, era berean, beste pertsonaren balioa eta duintasuna kontuan hartzea esan nahi du. Halaber, bestea autonomo, burujabe eta aske dela aitortzea esan nahi du, bai eta, askatasunez, nirekin harremana izan nahi duela onartzea ere.

Printzipio etiko hori ez izateak berdintasun eza, botere-abusua eta bikotekidea tresna gisa erabiltzea ekar dezake



Loturaren eta loturatik askatzearen etika

Gizakion behar garrantzitsuenetako bat besteekin loturak izatea da. Loturok estuak izan daitezke garrantzi berezia daukaten pertsonekin; hala nola senideekin, lagunekin edo bikotekidearekin. Harremanean bi pertsonak parte hartuko dutenez, harremana zuzenduko duten arauak aplikatu behar dira.

Loturaren eta loturatik askatzearen etikak dio gizaki orok eskubidea duela loturak ezartzeko, bere behar afektibo eta emozionalak asetzeko xedez.

Aldi berean, loturatik askatzeko eskubidea ere aitortzen du. Inor ez da inoren jabe. Inor ezin da menpean eduki edo tresna gisa erabili. Gizaki orok har dezake lotura batetik askatzeko erabakia, egoki iruditzen zaizkion arrazoiak direla medio.

Loturaren eta loturatik askatzearen etikak beti betetzen ez den oinarrizko printzipio bat errespetatzea eskatzen du:

Bikote bat osatzeko bi pertsona behar dira; bikotea desegiteko, ordea, nahikoa da bietako baten erabakia.

Printzipio etiko hori ez izateak bikotekidearekiko mendekotasuna eta babesgabetasuna dakar



Zainketaren etika

Zainketaren etikak maila oneko kalitate pertsonala izatea eskatzen du, pertsona gisa kalitate ona izatea. Uko egin behar ez zaion helburua da.

Pertsonen arteko harreman askotarikoen artean, bikoteak hainbat funtzio betetzen ditu. Garrantzitsuenetako bat honako hau da: bikotea osatzen duten pertsonak elkarri laguntzen diotela pertsona gisa duten hazkundean eta elkarren premiak ase behar dituztenean.

Pertsona egiten zaizkien zainketen xedea pertsona horien premiak asetzea, sufrimendua arintzea, eta haien segurtasuna eta ongizatea areagotzea izan ohi da. Zainketek, bikote-harreman batean, maite den pertsonarekiko segurtasun emozionala eta esker ona areagotzen dute.

Zainketek giza eta etika ahalmen handia eskatzen dute, desafio bat dira pertsona gisa gauzatzeko eta lagungarri bikotea gauzatzeko prozesuan.

Garrantzi ikaragarria dute, funtsezkoak baitira gizarte bidezkoagoa eta orekatuagoa lortzeko.